berria

Osteguna
Urtarrilaren 14a
2010. VII. urtea
2.039. zenbakia
1,10 €
www.berria.info



Aromatikoagoa
Hasi da sagardo garaia Astigarragako sagardotegietan 43

Batasuneko kideekin egindako bilerak ez direla delitu erabaki du Auzitegi Gorenak

Epaitegiko bost magistratuk zilegitzat jo dituzte 2006an Ibarretxe, Lopez, Ares, Otegi, Etxeberria, Dañobeitia, Petrikorena eta Barrenak izan zituzten elkarrizketak

EAEko Auzitegi Nagusiak erabakitakoaren kontra, Gorenak orain ebatzi du epaiketa herri akusazioekin bakarrik egin zitekeela. Haatik, auzia artxibatzea erabaki du 8



Port-au-Prince hiriburuko hondakinen artean aurkitutako pertsona baten gorpua. ORLANDO BARRIA / EFE

Triskantza eragin du lurrikara batek Haitin, ehun milatik gora lagun hilda

Richter eskalan 7 gradu izan ditu lurrikarak, eta hiriburua suntsitu du. Nazioarteko giza laguntza hasi da iristen, baina konboiek arazoak dituzte erdigunera iristeko, txikizioaren ondorioz 2-3

'Egunkaria auzia' ixteko eskaria Batzar Nagusietan

PPk izan ezik, Gipuzkoan ordezkaritza duten alderdi guztiek eskatu dute auzia artxibatzeko, eta auzipetuei elkartasuna adierazi diete, baita PSE-EEk ere 11

Jesus Mari Lazkano
Artista

«Urdaibaiko zentroak Guggenheim marka izatea funtsezkoa da»

Natura eta arkitekturaren «elkargune eta borroka» da Lazkanoren obra

Elkarrizketa 36-37

Espainiako Kopako final laurdenetan izango da Osasuna

Gorritxoek irabazi egin dute itzuliko partida, Masuden gol bati esker 22

Osasuna	1
Hercules	0